



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2018.02.20an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2018ko otsailaren 20an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Jarraian zehaztutako zuzenketak egin ondoren, Gobernu Juntak aho batez onartu du 2018ko urtarrilaren 23an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

Zuzenketak:

- 2.2. puntuan, “Transferentzia planta ez erabiltzeagatik, alta kostuak GHKri ez kobratzea hitzarmenaren zai”: “aho batez” esaten duenean, “Beñardo Kortabarria eta Iraitz Lazkanoren abstentzioarekin” esan behar du.
- 6. puntuan, “Galde-erreguetan”: “GHKri galdetuko zaio ia noiz irekiko den Epeleko Planta”, “Beñardok eskatuta” gehituko zaio.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Hainbat berme bueltatzea

Ondoren zehazten diren behin betiko bermeak itzultzeko espedienteak ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Ondorengo bermeak itzultzea:

- 1.- Enpresa: SOCIEDAD DE INGENIERÍA Y TRANSPORTES AUXILIARES, S.A. (SITA)

Kontratua: Edukiontzia garbitzeko ibilgailu batez hornitzeko kontratua (2016)

Zenbatekoa: **11.000 €.**

- 2.- Enpresa: VOLVO GROUP ESPAÑA, S.A.U.

Kontratua: Etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko bi ibilgailuz hornitzeko kontratua (2016)

Zenbatekoa: **40.000 €.**

- 3.- Enpresa: DORLET S.A.

Kontratua: Antzuola, Bergara, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko ekarpen-gune, larrialdi-gune eta miniguneetan sarbideak kontrolatzeko elementuak hornitu eta instalatzeko kontratua (2013)

Zenbatekoa: **6.500 €.**

2.2.- Foru Kontratazio Zentrala; posta zerbitzua emateko kontratua luzatzea

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak, 2015eko urriaren 22ko Foru Aginduaren bitartez, ebatzi zuen SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS enpresarekin burutzea “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzekeo esparru akordioa”, hasieran bi urteko iraupenarekin, eta beste bi urterako luzatzeko aukerarekin.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu eta formalizatu zuen.

Orain, Foru Aldundiak Esparru Akordioa urtebetez luzatzea proposatu duenez, eta Mankomunitateak zerbitzu honen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebaztea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Urtebetez luzatzea Mankomunitate honek posta zerbitzua emateko SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Ehunkiak bildu eta kudeatzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea; proposamen bakarra

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko abenduaren 19an egindako bilkuran, arropa erabilia eta tamaina txikiko objektu berrerabilgarrien gaikako bilketa, bildutako materialen kudeaketa eta edukiontzien garbiketa eta mantentzea egiteko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen, eta esleitze-prozedura ireki eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, Enplegu-Zentro Bereziei eta abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako Gizarteratze-Enpresei erreserbatzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean eskaintza bakarra aurkeztu da, eta onartu egin da, EMAUS GIPIZKOA, S.L.U. Gizarteratze-Enpresarena.

Aurkeztutako eskaintzak Baldintza Agirietan jasotako baldintza guztiak betetzen dituzenez, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. EMAUS GIPIZKOA, S.L.U. Gizarteratze-Enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita A gutun-azaleko agiriak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela frogatzen duen dokumentazioa, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkezteko.

2. Kontratu honen esleipena, dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.2.- Arrasateko lurpeko edukiontzien mantentze eta garbiketa lanak

Kudeaketa Batzordeko lehendakariaren proposamena jarraituz, gai hau mahai gainean uztea erabaki da.

3.3.- 2013ko urriaren 1ean, etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko CESPÁ, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresarekin sinatutako kontratuaren likidazioa eta behin betiko bermea bueltatzea

2013ko urriaren 1ean, etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko CESPÁ, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresarekin sinatutako kontratua 2017ko irailaren 30ean bukatu, eta harrera-akta 2018ko urtarrilaren 31n sinatu zen.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuaren 222.4 artikuluan jasotakoaren arabera, orain kontratuaren likidazioa onartu behar da eta kontratistari jakinarazi.

Hau dela eta, kontu-hartzaileak bere txostena egin du, non esaten den kontratu hau likidatutzat eman daitekeela eta bermeak itzuli osotasunean.

Gobernu Juntak, kontu-hartzailearen txostena ikusirik, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu kontratuaren likidazioa onartzea.
2. Berme eperik ez dagoenez, CESPÁ, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresari behin betiko bermea itzultzea, guztira 835.756,30 €-takoa.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

4.1.- Gipuzkoako Enpresen Lehiakortasuna Indartzea Sustatzeko Programa, 2017: "ENIS Eskualdeko Negozio Industrialen Sarea Proiektua" garatzeko Garaia Berrikuntza Gunea Koop. Elkartarekin hitzarmena

Gipuzkoako Foru Aldundiak "Gipuzkoako Lehiakortasuna Indartzea Sustatzeko Programa" 2017ko ekainaren 5ean argitaratu zuen. Horren bitartez enpresa eta enplegu gehiago eta hobeak sortzera bideratutako estrategia bat garatu nahi da, ekonomia produktiboaren alde eginda, batik bat, gure sektore estrategikoetan aberastasuna era jasangarrian sortzea indartzen duten portaera enpresarial eta soziala sustatuta. Gure eskualdeko industriaren alde mugimendu sozial bat sustatzen duen

proiektu bat izango da, aberastasuna sortzeko enpresa prozesuaren erdi-erdian jarriz eta gizarteari, ekonomiari eta lurraldeari egiten dion ekarpena azpimarratuz. Hori guztia eraldaketa enpresarialaren (antolamendua, kudeaketa eredua, hobeto lehiatzeko birdimentsionatzea, produktuaren eta/edo zerbitzuen katalogo berriak eta/edo gehigarriak) aldeko politikekin bat egingo da, hau da bereizkuntza, balio erantsia eta abantaila lehiakor iraunkorrak eskaintzen dituzten politikekin. Bestela esanda, enpresak eraldatzeko programak jarriko dira martxan; hala lehiakortasunaren kontzeptuan eboluzionatuko da, enpresen arteko lankidetzak sustatuta konpetentziak eskura ditzaten, eralda daitezten eta negozio eredia suspertu ditzaten.

Ibilbide horrek konpromiso bat behar du oraina ziurtatzeko, negozioa egokitzeko eta emaitzak hobetzeko, beti ere, enpresaren jasagarritasuna lortzeko. Ibilbide horrek ondorengo guztia izan beharko luke kontuan:

- Estrategia enpresariala, aurrerapena eta erabaki hartzea batzea.
- Enpresa bakoitzak gaitasun bereizgarri bat izatea funtsezko balio proposamen batean bilakatzeko baliabide kritikoak eta kide kritikoak erabilia (ezagutza eta gaitasunak konbinatu ahal izateko).
- Transmisio enpresarialek espiritu enpresariala pizten dute eta hazkunderako zein enplegurako potentzial handia eskaintzen dute.
- Lankidetzak enpresarialaren xedea da efikazia sortzea taldeen edo erakundeen gaitasunak konbinatuta.

Enpresa arteko lankidetzak dinamika gauzatzeko alorrean ere, izan ere, dimentsio enpresarial eraginkorrak eta efizienteak eskatzen ditu merkatu, produktu eta zerbitzuen arabera. Lankidetzak horien ezaugarria taldeen edo erakundeen gaitasuna bideratzeko borondatea da, gune komuna detektatuta eta bakoitzaren aktibo bereizgarriak konbinatuta. Lankidetzak dinamika horiek konplexutasuna artikulatu behar dute, lankidetzan inplikaturik dauden hainbat agenteren arteko interakzioetatik ahalik eta etekin handiena ateratzea.

Foru Aldundiak aurtengorako finkatutako lerro nagusien artean daude *"Enpresek edo enpresa ingurunean eragileak osatutako lankidetzak sareak sortu eta garatzea"* eta *"Enpresa edo lurralde arloko gaitasunak eta balio-kateak identifikatu eta garatzea, baita horietan oinarritutako aukerak ere"*.

Debagoieneko Mankomunitateak eta Garaia Berrikuntza Guneak egindako eskaerari erantzunez Foru Aldundiak "ENIS, Eskualdeko Negozio Industrialen Sarea" proiektua onartu du.

Proiektu honek Gipuzkoako Foru Aldunditik 52.541,70 €-ko diru-laguntza jasoko du, "Gipuzkoako Lehiakortasuna Indartzea Sustatzeko Programa" 2017. urteko deialdiaren barruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 10.3 artikulua babesean. Talde moduan garatuko da proiektu hau, taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituelarik gauzatzeko konpromisoak eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko diru laguntzaren zenbatekoak Foru Aldundiak onartu dituelarik, proiektuaren eskaeraren arabera. Denak onuraduntzat joko dira. Mankomunitatea taldearen ordezkari gisa arituko da, prozesuaren koordinatzaile lanak eginez proiektu honetan.

Jasotako diru-laguntza honela banatuko da:

- Garaia Berrikuntza Gunea, Koop. E.: 47.972,85 €.
- Debagoieneko Mankomunitatea: 4.568,85 €.

Orain, proiektu hau garatzeko parte hartuko duten erakundeekin lankidetzaz hitzarmena sinatu behar denez, Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Mankomunitatea koordinatzaile izango den “ENIS, Eskualdeko Negozio Industrialen Sarea” proiektua garatzeko GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA Kooperatiba Elkartearekin dagokion lankidetzaz hitzarmena sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

“LEHENA.- Hitzarmen honen xedea da **“ENIS Eskualdeko Negozio Industrialen Sarea”** proiektua garatzea hitzarmen honi erantzen zaiona. Aipatu proiektuaren garapenean parte hartzera konprometitzen dira bi aldeek, behar hainbat gaitasun tekniko eta esperientziadun langileak horretan inplikatur.

Proiektuaren helburu eta edukiak ondorengoak izango dira:

ENIS proiektuak Debagoieneko enpresa industrialekin sare bat abian jartzea nahi du. Aurreko urteetan emandako pausuei jarraituta eta jarritako oinarriak erabiliz, gure enpresen lehiakortasuna hobetzea bilatzen da. Hori lortzeko sektore industrialeko arazo nagusien analisi eta ikerketa bat egin ondoren, lankidetzaz zein banakako berrikuntza proiektuak garatu nahi dira.

Debagoieneko enpresa industrialen lehiakortasuna hobetzea eskualdeko lehenetsua da gaur egun. Horretarako ekonomiaren sustapenean, prestakuntzan eta ikerkuntzan aritzen diren eragile publiko zein pribatu ezberdinen lankidetzaz sustatu beharra dago. Krisialdiak eragin handia izan du eskualdeko enpresa industrialetan eta orokorrean sektore industriala, batez ere enpresa txiki eta ertainak osatzen dutenak, ahultasun egoera baten daude.

Debagoieneko industria sektorea indarberritzeko beharra dago, lankidetzaz proiektuak sustatuko dituen eta industriaren eraldaketa bultzatuko duena.

Proposamen hau Debagoieneko errealitateari egokitzeko industria kooperatibo zein merkantilen arteko lankidetzaz sustatzeko bideak irekiko ditu.

Sareak bultzatuko dituen proiektu bakoitzari babes eta jarraipena eskainiko dio beti ere industria sektorean proiektu berriak bultzatu daitezkeen helburuarekin.

Eskualde mailako proiektu estrategikoa da proposatzen dena, erronka sozio-ekonomikoei erantzuten dizkiena eskualdeko enpresa zein lurralde eragileak helburu berberetan lerrokatuz.

BIGARRENA.- Debagoieneko Mankomunitateak proiektu hau garatzeko Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotako diru-laguntza ordainduko dio taldea osatzen duen onuradun bakoitzari, Foru Aldundiak onartutako banaketaren arabera. Eranskinean jasotzen diren koadroetan azaltzen dira proiektuaren kosteak eta erakunde bakoitzak egotzitako eta justifikatu beharko dituen pertsonalaren dedikazioa zein proiektua garatzeko egingo diren beste gastuak. Era berean, proiektuaren finantzaziorako jasotako diru-laguntza eta proiektuan parte hartzen duten erakundeek ekarpena beste koadro baten jasotzen dira. Foru Aldundiak proiektuaren kitapenean ez balu justifikazioaren bat onartuko eta

ondorioz diru-laguntzen murrizketak ezarriz gero, aipatutako murrizketa dagokion erakundeari aplikatuko zaio.

HIRUGARRENA.- *Diru laguntza jaso ahal izateko taldeko onuradun bakoitzak bete beharko ditu aipatu deialdian jasotako betebeharrak guztiak.*

LAUGARRENA.- *Proiektua, 2018ko ekainaren 30ean bukatuko da.*

BOSTGARRENA.- *Hitzarmen hau indargabetzeko arrazoiak izango dira:*

- *Aldeen akordioa berari indargabetu edo ezeztatzeko.*
- *Aldeetako bakoitzak ez betetzea hemen deskribaturiko klausulen edukiak.*

SEIGARRENA.- *Datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, lankidetzaren esparruan, datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera tratatu beharko dira, eta ezingo dira erabili hitzarmen honetan hitzarturiko xedeaz bestelako helburu baterako.”*

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Debagoieneko Gizarte Mapa garatzeko Batzorde bat eratzeko proposamena

Lehendakariaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Mankomunitatearen estatutuen 27. artikuluan jasotakoaren arabera, Debagoieneko Gizarte Maparen gaia aztertzeko Batzorde Berezi bat sortzea, bere lehendakaria izendatuz, Unai Elkoro Oianguren.
- Mankomunitate honetako Udalei Batzorde Berezi honetarako bere ordezkaria lehenbailehen izendatzeko eskatzea.

5.2.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

17/82.- 17/30 faktura-zerrenda onartzea eta beraien ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA MILA ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (451.065,47 €).

17/83.- 17/31 faktura-zerrenda onartzea eta beraien ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA BERROGEITA BOST MILA EHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA BOST ZENTIMO (245.184,05 €).

17/84.- Garapen Agentzia Zerbitzuak 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako enpresa arloko hainbat proiektu garatu eta kudeatzeko behin behineko teknikari postu bat bitarteko funtzionario izaeraz betetzeko Mankomunitate honek deitutako oposizio-lehiaketan

- 1.- Hautagai onetsien eta baztertuen zerrenda onartzea.
- 2.- Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzea.
- 3.- Hautagai bakarrak 3. H.E. egiaztatu duenez, oposizio-aldiko **bigarren ariketa**, proba teoriko-praktikoa, **urtarrilaren 19an** egingo da, goizeko 9:00etan, Debagoieneko Mankomunitatearen geletan, Arrasateko Nafarroa Etorbideko 17an.

17/85.- 1.- Ondare erantzukizuneko espediente administratiboa abiaraztea, Mikel Lizarralde Zabaleta jaunak goian adierazitako gertaerengatik sufritutako kalte-ordainerako eskubidea dagokion zehazteko helburuarekin.

2.- Mankomunitate honetako funtzionario den Belen Txintxurreta Iparragirre andrea espedientearen instruktore izendatzea.

17/86.- 1.- A.A.I. kontratatzea txofer-zamaketari bezala ondorengo lanak egiteko:

- Abenduaren 20an, J.L. ordezkatzeko.
- Abenduaren 22an, G.I. ordezkatzeko.
- Abenduaren 26tik 29ra, D.C. ordezkatzeko.
- Urtarrilaren 2an, papera eta kartoia jasotzeko zerbitzu berezia egiteko.
- Urtarrilaren 4an, barredoren edukiontzia jasotzeko zerbitzu berezia egiteko.

Txofer-zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J.M.T.L. kontratatzea txofer-zamaketari bezala ondorengo lanak egiteko:

- Abenduaren 26tik 29ra J.A. txofer-zamaketaria ordezkatzeko.
- Urtarrilaren 2an, papera eta kartoia jasotzeko zerbitzu berezia egiteko.
- Urtarrilaren 5ean, G.I. ordezkatzeko.

Txofer-zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- M.A.E. kontratatzea urtarrilaren 3an, 5ean eta 8tik 10era M.E. Epeleko zainzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- E.A.I. kontratatzea ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Urtarrilaren 10ean, J.L.M. Garbiguneko zainzailea.
- Urtarrilaren 16tik 31ra, J.A. Epeleko zainzailea.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

17/87.- Z.G.S. eta O.G.B. bitarteko funtzionario izendatzea 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, alde batetik, Enplegu Zentroaren kudeaketa eta lan orientazio lanak egiteko LANBIDEn 2017ko deialdiaren barruan (2017ko uztailaren 28ko EHAA), eta bestetik, LANBIDEn 2017ko deialdiaren barruan (2017ko



uztailaren 31ko EHAA) finantzatutako Enplegurako Orientazio –Ekintza programa garatzeko. Hileko ordainsari gordina 2.346,23 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:

- Soldata: 940,43 € (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 402,27 € (18)
- Berariazko osagarria: 1003,53 €.

AMAIA IRIZAR SAINZ teknikaria bitarteko funtzionario izendatzea 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte, 2018. urtean Garapen Agentzia Zerbitzuak garatu beharreko ondorengo programak garatzeko: “3G Gaitasunak Garaituz Goiaz”, “Hazilan” eta “Txertatu Merkatuan”. Hileko ordainsari gordina 2.283,40 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:

- Soldata: 940,43 € (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 402,27 € (18)
- Berariazko osagarria: 940,70 €.

Agentzia Zerbitzuko lanaldi erdirako administraria den Naiara Aranburu 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte beste lanaldi erdirako bitarteko funtzionario izendatzea “3G Gaitasunak Garaituz Goiaz”, “Hazilan” eta “Txertatu Merkatuan” programak garatzeko lan administratiboak egiteko. Hileko ordainsari gordina 1.110,93 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:

- Soldata: 360,14 € (C1)
- Lanpostu-mailako osagarria: 189,29 € (17)
- Berariazko osagarria: 561,50 €.

17/88.- K.I. funtzionarioaren egun erdiko lanaldi murrizketa 2018ko abuztuaren 31 arte luzatzea.

Berrero ere O.G.I. izendatzea bitarteko funtzionario Kristinaren lanaldi erdiaren ordezkapena egiteko.

17/89.- 17/32 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMABI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO (592.236,00 €).

17/90.- 17/33 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERROGEITA HAMASEI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA BERROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (56.623,49 €).

17/91.- 17/34 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (395.735,37 €).

17/92.- 17/35 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA HAMA MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA BERROGEITA HAMA ZENTIMO (31.152,51 €).

17/93.- 17/36 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (374.399,60 €).



18/01.- Z.G., behin behineko lan orientatzaileak, eskatutako umea zaintzeko lanaldi erdiaren murrizketa onartzea.

18/02.- 1.- Lanbidekin dagokion lankidetzaren hitzarmena sinatzea, erakunde honek proposatutako klausulen arabera.

2.- Aipatu deialdiko pertsona sustatzaileak aukeratzeko ondorengo prozesu eta irizpideak onartzea:

○ **INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA (onuradunak, baldintzak, dirulaguntza kopurua, programaren iraupena...):**

- www.debagoiena.eus
- Debagoieneko Mankomunitatean
Nafarroa Etorbidea, 17 – behea
Arrasate
Tfno.: 943-793090 rgarcia@debagoiena.eus

○ **ESKAERAK ENTREGATZEKO:**

- Epea: Otsailaren 6ra arte
- Orduetgia: 8etatik 14:00ak arte
- Lekua: Debagoieneko Mankomunitatea – Nafarroa Etorbidea, 17 – Arrasate.

○ **HAUTAKETA PROZESUA:**

- Otsailaren 7an eta 8an.
- Hautatuen zerrenda: otsailaren 9an www.debagoiena.eus orrian
- Erreklamazioak: otsailaren 12tik 14ra arte, biak barne.

○ **PROGRAMAREN IRAUPENA**

- Enpresa ideia bat garatzeko programa: otsailaren 19tik maiatzaren 18ra arte
- Enpresa proiektu berriak abian jartzeko programa: otsailaren 19tik maiatzaren 18ra arte.

○ **PROGRAMAREN DIFUSIOA:**

Programa hau ezagutzera emateko ondorengo kanalak erabiliko ditugu:

- Ekintzailatza buletin elektronikoa
- Debagoieneko web orria
- Prentsa oharrak (Diario Vasco, Berria, Diario de Gipuzkoa, Mondraberi...)
- Eskualdeko udal teknikoak
- Debagoieneko LANBIDE.
- Beste erakunde batzuk (Kutxa Zeharo,)
- Garapen agentziaren ekimen berrien zerbitzuaren erabiltzaileei komunikazio zuzena.

○ HAUTAKETA EGITEKO IRIZPIDEAK

a) **Enpresa ideia bat garatzeko programa**

Programaren helburua: Negozio ideia bat duten pertsonei tutorizazio, aholkularitza eta laguntza ematea, ideia hori aztertzeko eta garatzeko.

Sustatzailearen egokitasuna/bateragarritasuna ideiarekin			50
Ikasketak (sektorearekin lotutakoa)	Gehienez 25		
Lan esperientzia sektorean	Gehienez 25		
Genero aldagaia			5
Emakume izatea	5		
Langabezia			10
Denbora langabezian	<=12 hilabete	5	
	>12	10	
Ideia			35
Ideiaren garapena	Ezer Ez	0	
	Gutxi	10	
	Asko	20	
Udalerriko enpresa munduan jardueraren egokitasun edo berritasun	Ez dago eta komenigarria da	9	
	Badago baina ez da nahikoa	5	
	Nahikoa zabaldua dago	0	
Aurreikusten diren lanpostuak	Lanpostu bakoitzeko 2 puntu	Gehienez 6	
GUZTIRA			100

Programa honetan parte hartzeko gutxienez 50 puntu lortu beharko da.

Emaitzak www.debagoiena.eus orrian argitaratuko ditugu eta partehartzaile guztiei emailen bidez

b) **Enpresa proiektu berriak abian jartzeko programa**

Programaren helburua /xedea: Negozio plan bat egina eduki eta enpresa-ideia hori Debagoiengan martxan jartzea helburu duten pertsonei tutorizazio, aholkularitza eta laguntza ematea.



Sustatzailearen egokitasuna/bateragarritasuna ideiarekin			40
Ikasketak (sektorearekin lotuta)		Gehienez 20	
Lan esperientzia sektorean		Gehienez 20	
Genero aldagaia			5
Emakume izatea	5		
Langabezia			10
Denbora langabezian	<=12 hilabete	5	
	>12	10	
Enpresa proiektua			45
Enpresa-proiektuaren ekonomia eta finantza-bideragarritasuna	Ezer Ez	0	
	Gutxi	10	
	Askok	30	
Udalerriko enpresa munduan jardueraren egokitasun edo berritasun	Ez dago eta komenigarria da	9	
	Badago baina ez da nahikoa	5	
	Nahikoa zabaldua dago	0	
Aurreikusten diren lanpostuak	Lanpostu bakoitzeko 2 puntu	Gehienez 6	
GUZTIRA			100

Programa honetan parte hartzeko gutxienez 50 puntu lortu beharko da.

Emaitzak www.debagoiena.eus orrian argitaratuko ditugu eta partehartzaile guztiei emailen bidez

2.- Ebazpen honen berri Gobernu Juntari ematea datorren bilkuran.

18/03.- 1.- I.J.I.G. kontratatzea M.E. Epeleko zaintzailearen ordezkapena egiteko urtarrilaren 16tik aurrera gaixotasunagatik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J.M.T.L. kontratatzea txofer-zamaketari bezala ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Urtarrilaren 19an, 25ean eta 26an, J.E..
- Urtarrilaren 29TIK 31RA, G.I..

Txofer-zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- M.A.E. kontratatzea urtarrilaren 25ean D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- J.R.A. kontratatzea urtarrilaren 22tik aurrera edukiontzi lateralak konpontzeko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.



18/04.- 1.- A.O.F. andreak Bergarako San Antonio kaleko hondakin edukiontzi batzuen ondoan izandako ererikoaren ondorioz aurkeztutako ondare erantzukizuneko erreklamazioa ez onartzea.

2.- Erreklamatzailerari Ebazpen hau jakinaraztea, baita espedienteko gainerako interesdunei ere.

3.- Halaber, Ebazpen hau Batzorde Juridiko Aholkulariari jakinaraztea, 9/2004 Legearen, azaroaren 24koaren, 30.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskadiko Batzorde Juridiko Aholkulariaren Antolamendu eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 34. artikuluan xedatutako forman eta epean.

18/05.- 18/01 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA BOST MILA ZAZPIEHUN ETA HAMAZORTZI EURO ETA LAUROGEITA LAU ZENTIMO (25.718,84 €).

18/06.- O.I.A. eta A.E.E. bitarteko funtzionario izendatzea sei hilabeterako, 2018ko otsailaren 1etik uztailaren 31ra arte, Mankomunitateko Hondakinen Informazio Bulego zentralizatuan aurrez-aurreko zein telefono bidezko arreta eskaini, udalerrietako informazio bulegoak koordinatu eta hondakin bilketari dagozkion ikuskaritza lanak egiteko.

Hileko ordainsari gordina 2.091,21 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:

- Soldata: 720,27 € (C1)
- Lanpostu-mailako osagarria: 378,57 € (17)
- Berariazko osagarria: 992,37 €.

18/07.- 1.- J.M.T.L. kontratatzea otsailaren 1etik 28ra arte txofer-zamaketari bezala zerbitzuko lan pilaketari aurre egiteko. Txofer-zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- M.A.E. otsailaren 12an eta 15ean D.G. Garbiguneko zainzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

18/08.- 1.- Enpresa-idea bat garatzeko Programa

Parte hartzaileen ondorengo zerrenda onartzea:

- M.M.E.
- O.A.
- E.L.L.I.

2.- Enpresa proiektu berriak abian jartzeko Programa

Ez da eskaerarik egon

18/09.- - A.E. langileari 5.409,11 €-ko mailegua ematea, 24 hilekotan itzuli beharko duelarik.



18/10.- 1.- Ondare erantzukizuneko espediente administratiboa abiaraztea, Flora Jallas Jallas andreak goian adierazitako gertaerengatik sufritutako lesioengatik kalte-ordainerako eskubidea dagokion zehazteko helburuarekin.

2.- Mankomunitate honetako funtzionario den B.T. I. andrea espedientearen instruktore izendatzea.

6.- GALDE-ERREGUAK

- **San Sebastián-Gipuzkoa Film Commission;** Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Fomento de San Sebastián, S.A.ren eta Gipuzkoako Garapen Agentzien artean sinatzea proposatzen den lankidetzaren hitzarmenaren berri eman du Agentzia Batzordeko lehendakariak. Hitzarmen honen xedea Donostiarako eta probintziarako Film Commission lana egingo duen eta "San Sebastián-Gipuzkoa Film Commission" izen izango duen bulego bat sortzea da, Donostia hiria Gipuzkoa lurraldea sustatzen laguntzeko, nazio zein nazioarte mailako ikus-entzunezko industriaren esparruan, hirian eta lurraldean oro har filmazioak egiteko erakartze lana bultzatuz eta, gainera, filmazio horiek egin ahal izatea ahalbidetuz. Hori guztia toki eta probintzia mailako ikus-entzunezkoen sektorearen eta sektore digitalaren proiektzio eta garapenerako.

Gobernu Juntak hitzarmen hau sinatzearen aldeko iritzia adierazi du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:30etan, bukatutzat eman da bilkura.